

Badator sagardo-festa!

Asteazkenean, **La Oreja de Van Gogh-eko** lagunei 14. kupela zabalduko diete Petritegin, ohitura den bezala

Urtarrilaren 16a egun seinalatua izango da, baina baita 28a ere. Orduan hasiko da lanean **Fraisoroko dastatzaile taldea**

Litekeena gure **Moko** sagar-mota eder galant hori Asturiastik ekarritakoa izatea



LAUBIDE

**FELIX
IBARGUTXI**

Sagardo-denboraldia inauguratzeko ospakizun bat baino gehiago izaten dira, eta horietan oihartzunik handiena Astigarragoak izaten du. Jakinekoea da aurten **La Oreja de Van Gogh** taldeak esango dituela «Gure sagardo berria» hitz eritualak.

Batzuk, beharbada, harritu egingo ziren zertxobait. Nolatan talde hau?, pentsatuko zuten, jende horrek sagardoarekin ezer ikustekorik ez duela iritzita. Egia esateko, sagardoaren pregoilari izateko ez da sagardoarekiko lotura berezirik eskatzen. Baldintza bakarra: ospetsua izatea. Eta, izendapen honen bidez, nik inpresioa daukat «publiko berri bategana» iritsiko dela txotx-festaren oihartzuna.

Hemen denak ari dira ahalik eta urrutien iritsi nahian. Urtero txotx-festa handi hau antolatzen duenak ere, **Sagardotxoak**, urrutiko oihartzuna lortu nahi du. Galdetu diet bisitarien jatorriaz, eta datu hauek eman: iazko bisitariak, guztira, 10.000; Euskal Hermitik, %64 (Gipuzkoa %66, Bizkaia %12, Iparralde %12, Araba %7 eta Nafarroa %3); Espainiatik, %17 (Katalunia %48, Madril %31, Aragoi %12, Kantabria %3, Galizia %2, Errioxa %1 eta %3 besteak); Europatik %14; Amerikatik, %4; beste tokietatik, %1.

Petritegiko kupel kuttuna

La Oreja de Van Gogh-eko kideek **Petritegi** sagardotegian esango dute zoriarekiko esaldia. Eta, zehazkiago, 14. kupelaren ondoan. Hango kupelek mendi-izena dute, eta hamalaugarren hori **Menditxo** izenez bataiatu zuten bere garaian. Sagardotegitik gertu dagoen muino bati esan ohi diote Menditxo, eta badira askoz txinparta gehiagoko izenak; adibidez, Aizkorri. Baina urtero Menditxo ondoan egiten dute ospetsuek lehen dastaketa ofiziala.

1994an hasi zen ospakizun hau egiten. Hogeitaurte honetan, ia-ia beti Petritegin egiten da lehen dastaketa hori, eta bi urtetan, berri, **Bereziartuan**. 250 lagun bildu ohi dira bertara. «Zer moduz moldatzen zarete hainbeste bezerekin?», galdetu diot Petritegiko **Alnara Otañori**, inoizoa ni.



Beti dago irteeraren bat. Lazkaon da. Egin zuten bidegorria, etxe hori ez zuten bota, bertan gizon batek tailerra zeukalako. Hark erretiroa hartu zuen, etxeak jarraitu zuen, eta ondoren artista (anonimo) bat azaldu zen egoera 'konpontzera'. :: OLATZ ELOSEGI

«Ohituta gaude. Askotan izaten ditugu horrelako jendetzak. Laster kontzertua izango dugu **El Culpio Asesino**rena», esan dit. **Bilbao**ko **teatro**ko **dira** emanaldi hori, eta autobusak jarriko dira Donostiako Ar-zai Onaren katedral ondoan joan-etorria egiteko.

Dastatzaile talde ofiziala

Urtarrilaren 16a egun handia izango da. Baina 28a ere apuntatu beharrekoa dugu. Orduan bilduko baita, lehenbiziko aldiz, **Fraisoroko dastatzaile-taldea**.

Jakina denez, halako Dastatzaile Talde Ofizial bat osatu nahian dabil Fraisoroko Laborategia. Benetako adituek osatutako taldea nahi luke Foru Aldundiaren laborategi horrek, eta horretarako, jakina, ikastaroak egin beharko ditu. 65 lagunek azaldu dute horko kide izateko interesa—erdiak baino gehiago sagardogileak, eta zenbait sagardogititik bi edo hiru lagun—eta denek emango zaie prestaketa-ikastaroa. Hogeitaurteko jaso dute jadanik ikastaro hori, eta hilaren 28an egingo dituzte lehenbiziko dastaketak. Hasten diren guztiak ez dira gero Talde Ofizialeko kide izango. Ba-zuk bidean geldituko dira. «Nahi dugu dastatzaile-taldeak orkestra bat moduan funtzionatzea; alegia, irizpide batzuen barruan beti, arrasto barruan, nolabait esateko; beraz, asko aldentzen diren lagunek taldetik aparte geldituko dira», adierazi dit **Domingo Merinok**, laborategiko zuzendariak. Merinorekin batera, **Fraisoroko Agurtzane Andueza** ari da.

Izena eman duten 65 lagun horietatik, 40 bat lagunek osatuko dute azkenean Talde Ofiziala. Sagardogileek benetako interesa agertu dute, eta prest daude noiznahi beren lagin 'one-nak' bidaltzeko, dastatzaileon oniritzia jasotzeko. Dastatzaileek ez dute, nolabait esateko, «diploma orokorrik» emango; hots, bidali zaien botila horren lotearren kalitatea ziurtatu dute soilik. Esan bezala, jakintsuok 28an zabalduko dituzte lehenbiziko botilak.

Moko sagarraren jatorriaren bila

Aspaldi honetan asko abonatzaren ari dira Moko sagarra. Hura bezalakorik ez omen dago polifenol eta azidotasun aldetik. «Gatza bezalakoa da: nahasketa guztietan komenigarria», esan zidan behin **Domingo Arina** enologoak. Baina kontatzeke dago sagar-mota honen historia, eta hemen saiatuko naiz historia-izpi batzuk behintzat ematen.

1982an, Foru Aldundiko **Iñaki Larrañaga** hasi zen Bertorio eta Donostialdeko baserrietan galdeza. Nahi zituen ezagutu baserriar eta sagardogileen gustuko sagar-motak. Eta etxe haiek mentuak lortu zituen, gero Hondarribiko Zubietan etxaldean sagasti erreferentziakoa osatzeko. Moko

motaren mentu batzuk ere lortu zituen, Hermaniko Iparragirreko **Antonio Eguzkizak** emanda; alegia, gaur egungo sagardogileen lehendakariaren aitak.

«1994an, Domingo Arinak analizatu egin zuen Mokoren muztioa eta harrituta gelditu zen. Orduko, urte batzuk eginak zituen Zubietan, baina Moko sekula aztertu gabe zegoen, hiru arbola besterik ez baitzen mota horretakoak», adierazi dit Larrañagak. «Hain nortasun bereziko sagarra zela ikusita, segituan hasi ginen arbola berriak txertatzen. Eta 1995-1996an salgai ipini genituen lehenbizikoak».

Urmietako Eula sagardotegiko **Isidro Iguaranen** testigantza ere kontuan hartu beharrekoa da. «Gure etxera, Moko hori, aitak [Santi Iguaranek] ekarri zuen. Orain 61 urte dira sagastia aldatu zuela. Diputazioak Heranin zeukan Landare-Toki mintegitik ekarri zituen arbolak, baina aitak ez zion Moko esaten, Asturiar baxetik, mintegiko arduradunak hala esaten ziolako. Asturiastik ekarritako motaren bat izango zen, noski».

Urmietan bada Moko edo Setien izeneko sagardotegia, Moko baserrian jaitako Migel Setienek 1920an sortua. Badaezpada, hantaz ere deitu egin dut. «Ez, sagar-mota horrek ez dauka gurekin zerikusirik. Nik orain dela hamabost urte aditu nuen lehenbiziko aldiz izen hori», esan dit **Eugenio Urruzola Setien**, oraingo nagusiak.

fibargutxi@diariovasco.com